

Joan Mari Torrealdairen testigantza

EGUNKARIA KASUA: TORTURAREN MARKAK

ATARIKOA

Gure atxiloketa eta *Euskaldunon Egunkaria*-ren ixtea 2003ko otsailaren 20an gertatu ziren. Bitan banatzen du data horrek euskal kazetaritza eta gutako batzuen historia. Bi historiek, kolektiboak eta indibidualak, biek merezi dute gure arreta. Hilda jarraitzen duen kazetaren dramak, ordea, ezin du ezkutatu gurea, gutako bakoitzarena. Kalteak, kolektiboak ez eze, indibidualak izan baitira.

Historia indibidual hori lehen ordutik errebindikatu nuen.

Historia horixe kontatzera nator orain, neurea. Ez lotsa gabe: torturarik esistitzen ez den baina torturatu ugari ezagutzen dugun herri honetan, ni baino gehiago sufritu duen asko daukadalako inguruan. Haien guztien eta *Egunkaria*-ko nire kideen baimenarekin ausartuko naiz plazara ateratzera.

Eskatu izan ez balidate, ez nuen neure burua eskainiko. Izan ere, nik ez dut jardun torturaren gaiarekin plaza publikoan sekula. Lehen orduan hartu nuen erabakia: puri-purian zegoen torturaren gaia ez nuen ahotan hartuko, egunerokotasuna berreskuratu nahi nuelako, nire kultur lana, nire ikerketatxoak, *Jakin* aldizkariaren zuzendaritza. Eta ez nituelako nire familia, nire haurrak, asunto honetan sartuak ikusi nahi.

Telebistako platora jo ordez, psikiatrarengana jo nuen, zauriak sendatzera, eta normaltasuna berreskuratzera.

Gaia ahotan hartu nuenean ere, beti pribatuan, ez nuen tortura hitza aipatzen, tratu txar edo inhumano gisa izendatzen nuen. Jasandako tratuari “tortura” hitza bosgarren urteurrenean jarri nion jendaurrean lehen aldiz, EITBn, 2008an. Une hartantxe atera zitzaidan, bost urteren buruan, barruko korapiloren bat ordurako askatua nuen seinale.

Gaur hemen nago, lehen aldiz gaia modu monografikoan azaltzeko asmotan. Atsegin zait testuingurua: akademikoa eta nazioartekoa.

Berriz diot, erreparo handiz nator: historia txikia da, ezdeusa (niretzat salbu, agian). Testigantza apala da.

FAMILIAREN IZUA

Usurbilen bizi naiz, Donostia ondoan, etxe familiabakarren urbanizazio batean. Lau lagun bizi ginen bertan, senar-emazteok eta 10 eta 12 urteko bi seme-alabak.

2003ko otsailaren 20ko gaueko ordu bat eta erdietan orroka sartu ziren etxean, atea kolpeka txikitu eta sekulako iskanbila eta burrunbarekin, polizia-filmetako eraso-taldeak bailiran. Espantuaren espantuz ohetik jaiki nahian lurrera erori nintzen. Emaztea izan zen jaikitzen eta sarrerara hurbiltzen azkarrena, eta tenple handiz esan zien erasotzaileei kontu gehiagoz ibiltzeko ume txikiak genituela eta. Ni jaitsi nintzenerako ate puskatuaren zulotik sartuta baziren dozena erdi bat lagun, armekin apuntatzen, argi gorriz, gure buruetara. Ondoren sartu ziren gainerakoak. Ez dakit zenbat. Askok. Guardia zibilak ziren, nahiz eta gehienak paisanoz jantzi.

“Etxe nahasketa behar du izan”, esan nien uste osoz, ezin bainuen sinetsi nire begiek ikusten zutena. Eta haietako batek: “Zu al zara Torrealdai jauna”. Beste azalpenik ez, akusaziorik ez, epailearen agindua daukatela besterik. Ez duzu deus ulertzen baina bai sentitzen zureak egin duela. Kolpean ulertu nuen aurrerantzean traputzar bat nintzela haien atzaparretan. Nire erresistentzia hausten hasia zen.

Emaztea eta bi haurrak egongelan apartatu zituzten, eta ni bereiz hartu eta miaketarako nire bulegora eramán ninduten, artxibora, liburutegira. Dozena bat gizonek jardun zuten miaketa lanetan lau ordutik gora,

jo batera eta jo bestera.

Ni, aldiz, inkomunikatuta nengoen, eta mugitu ezinda nindukaten.

Bukatu zutenean, emaztea eta haurrak agurtzea eskatu nuen. Ozta-ozta agurtu ahal izan nituen. Guztiz blokeatua nengoen, eta haiek ez gutxiago.

Honela gertatu zen: unetxo batez besarkatu ahal izan nuen familia. Inkomunikatuta nengoela eta, lauzpabost guardia zibilez inguraturik. Segidan eskuak lotu eta gaizkile gisa gau ilun eta hotzean atera ninduten etxetik. Ataria gurutzatu berritan, agente batek zera bota zidan: “zein hotz agurtu dituzun haurrak!”. Eta kotxe polizialean sartzeko gaudela, beste hau: “aitaren zein irudi izango dute orain hurrek?”.

Gaiztoa behar du gizonak! Ni txikitzea bilatzen zuen, eta lortu zuen.

DOKUMENTUEN SARRASKIA

Etxean, lau ordu luzetan, nire paper intimoak, dosierrak, ikerketak, nire dokumentu eta paper mota guztiak begiratu zituzten, desordenatu, eta ehunka asko hartu eta eraman. Ez zuten deus errespetatu, emaztearen dokumentazioa ere ez.

Dokumentuz beteriko poltsa eta kaxa asko eraman zituzten, ordenagailu pertsonala eta telefono zelularra ere bai.

Eta etxetik *Jakin* aldizkariko nire bulego profesionalera eraman ninduten.

Bulegoan, gauza bera. Hogei agentetik gora baziren han, geletan eta pasilloetan, jo batera eta jo bestera: txoko guztiak filmatzen, dokumentuak artxiboetatik atera eta hartzen, ordenagailuak desmuntatzen eta husten. Mugitu ezin zuen bakarra ni nintzen. A zer txikizioa egin zutena! Ordenatuta zegoena desordenatu, armairu eta txoko guztiak miatu, milaka dokumentu eta paper eraman. Begirunerik gabe. Eta zehaztu edo deskribatu gabe. Kexatzen nintzen, baina alferrik. Zazpi bat ordu horrela.

Inpotentziarik handienarekin ikusten nuen nola ari ziren hondatzen nire bizitza eta lan profesionala, nire ikerketak, nire etorkizuna.

Egunkaria-ri dagokion dokumentazioa ere eraman zuten. Hura bakarrik eramateko esan nien, baina ez: dena eraman zuten, nire-neurea, *Jakin*-ekoa, bilatu zuten guztia, 1960tik honako agendak ere bai.

Biluzik utzi ninduten, ez fisikoki, bai intelektualki.

MADRILERAKO BIDAIA LUZEA

Madrilera abiatu ginenerako, etxean sartu zirenetik 12 ordu iragan ziren. Ez jateko, ez edateko eman zidaten ezer. Beraiek, bai, kafea hartu zuten *Jakin*-eko bulegoan, eta bidean sandwichak. Niri ez zidaten eskaini.

Bulegoan eskuak lotu, burua makurrarazi eta autoan sartu ninduten, eta Madrila. Ordurako jende eta kazetari ugari zegoen atarian baina nik ez nuen inor ikusi. Filmatua gelditu da irteera. Horrelaxe, eskuak lotuta, begiak itxita, pixa egiteko aukerarik gabe (hiru aldiz eskatu nien arren) egin nuen bidea bi polizien artean. Eta isildu gabe, hitz egitera behartua, atsedetik gabe. Ahituta nengoela eta isilik egon nahi nuela esan nien birritan. Alferrik.

Zergatik ninderamaten - eta zergatik hala - galdetu nien. Garratz, zorrotz eta lehor erantzun zidan gaiztoena zirudienak: “Luma batzuek pistolek baino gehiago hiltzen dute”.

INFERNUKO BOST EGUNAK

Madril hirian sartu ginenean, burua belaunen parera makurrarazi zidaten, kotxearen sirena piztu zuten eta sekulako abiadan eraman ninduten, gero jakin nuenez, Guardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusira.

Arratsalde erdian-edo sartu ninduten zulo beltz hartan. Jainkoak, munduaren sorreran, eguna eta gaua bereizi omen zituen. Guardia zibilek guri eguna eta gaua berdindu egin ziguten, dena bihurtu zuten gau, ilun, beltz ziega hartan.

Gogoratze hutsak orain ere zirrara egiten dit.

Isolamendua eta bakardadea

Gela txiki batean (2 X 3 X 2,5) sartu ninduten, esponjazko koltxoiko ohe zikin batekin, maindire eta oheburukorik gabea, leihotxo bat burdinazko atean.

Gelan bakarrik nengoen baina gune berean jende gehiago zegoen. Ez nekien nor, ezta *Egunkaria*-ko jendea zen ere. Han bertan edo galdeketa geletan geundela hiru lagun identifikatu nituen ahotsez: Txema Auzmendi Administrazio Kontseiluko idazkaria, Iñaki Uria kontseilari ordezkaria, Martxelo Otamendi kazetako zuzendaria. Kartzelara sartu gintuztenean, seigarren egunean, osatu genuen puzzlea: *Egunkaria*-ko karguak egonak ginen elkarren ondoan, 10 lagun.

Inkomunikazio aldia deitzen zaio, eta ez da gezurra: erlojurik gabe, 24 orduko bonbila piztuarekin, kaleko hotsik gabe, eguneko argirik gabe... galduta zaude. Mediki forentsearengana eramaten nindutenean, horrek beti galdetzen zidan eguna eta ordua. Eta ez nuen sekula asmatu. Desorientazioa guztizkoa da, nire kasuan behintzat.

Ordu asko (eta hain luzeak!) igaro genituen espazio berean, batzuetan isil-isil eta tarteka burrunbarekin. Beldurraren isiltasuna zen nagusi, inor ez zen ausartzen ahots goran hitz egitera, gela berean bi zirenean ere isilik mantentzen ziren, han ez zen txutxumutxurik ez murmuriorik, zaintzaileenak salbu. Baina isiltasun tentso hori maiz eten ohi zen, norbaiten bila zetozenean, oso maiz. Baretasuna hausteko, guardia zibilek burdinazko ateen sarraila kolpe handiz astintzen zuten. Ondotxo ikasi genuen segidakoa: “zutik paretaren aurka” eta hantxe bertan kaputxa jantzi, eta berak bere eskuz zure burua makurtuz eramaten zintuen interrogatorio gelara.

Galdeketatik bueltan zekartzaten batzuen paradero negargarria sumatzen zenuen: arrastaka inoiz, puzkerka, negar-zotinka.

Pausoak entzuten nitueneko, izuak harrapatzen ninduen, nire bila ote zetozen berriz, eta izua hezur-muinetaraino sartzen zitzaidan ziegako ate-sarraila sekulako zartakoz irekitzen zidatenean, zer zetorkidan aurreratuz.

Ohikoa baino iskanbila gehiago ere izan genuen.

Bizpahiru aldiz entzun nuen mutil bat krudelki torturatzen. Komandoren bat eroria zela pentsatu nuen. Orroak, kolpeak, mehatxuak, mutikoaren kexuak... ozenak eta beldurgarriak ziren. Grabazioa ote zen esan zidaten kartzelan. Egia ala gezurra, efektu berbera lortzen zuten, izua hezur-muinetaraino sartzea. Nire kasuan, bederen.

Tortura sesio horietako baten ondoren, nire gelatik metro gutxitara bere buruarekin paretaren kontra hasi zen bat, epailearengana eramateko oihuka eskatuz, bera ere horrela torturatuko zutela eta. Zaintzaileen artean sekulako zalaparta sortu zen, isilarazi zuten, han ez zela torturatzen esan zioten, eta kanpora atera zuten nonbait.

Gero jakin genuen krisi hori izan zuena Pello Zubiria zela, *Egunkaria*-ko lehen zuzendaria, eta gaixotasun kroniko bat duena. Ospitalera eraman omen zuten, inkomunikatuta, familiak ezer ez zekiela. Gezurra zabaldu zuten ondoren, bere buruaz beste egin nahi izan zuela.

Lehen hiru egunak izan ziren mugimendu handikoak, interrogatorioetara joan-etorrietakoak, eta poliziaren aurreko deklarazioa egin ostean-edo, isilaldiak askoz luzeagoak ziren. Luzeagoak ez eze, luzeegiak, bukaezinak. Zeure buruarekin bakarrik, zure deklarazioak erreparatzen hasten zara, ez ote duzun inor konprometitu; eta besteek zer deklaratu ote duten, batez ere aurretiaz esan dizutenean saldu eta salatu zaitzute.

Bakardade horretan, nire eta familiaren paraderoa ikusita, negar egiten saiatu nintzen, eta blokeoaren blokeoz ez nuen lortu.

Galdeketa saioak

Ez dakit zenbat aldiz eraman ninduten interrogatorioen gelara. Batetik bestera batzuetan tarte luzea ematen zuen, eta beste batzuetan ia segidan, beste batzuen deklarazioak kontrastatzera edo.

Hiru gai jorratu zituzten nirekin: Elkar Fundazioa, Eusko Jaurlaritza eta *Egunkaria*. Azken saioetan *Egunkaria*-n zentratu ziren. Galdera gehienak *Egunkaria*-ren sorrera garaikoak ziren, 13 urte lehenagoakoak, galdera zehatzak, nik oso gutxi gogoratzen nituenak. Zehaztasun hori interesatzen zitzaienen, ordea; nik ez nekiena edo buruan ez neukana. Beraiek ematen zizkidaten datuak eta datak. Nire lana memorizatzea zen, behialako eskola tradizionalan bezala. Ez dakit zenbat sesio eman genuen ikasketa lan horretan, asko. Dozenaren bat gairen ardatzean antolatu zuten galdetegia, eta nik erantzunak banan-banan ikasi behar izan nituen, errepikatzearen poderioz ikasi ere.

Ondo memorizatuta neuzkala erabaki zutenean, deklarazio poliziala egitera eraman ninduten. Abiatzeko unean polizia batek bortizki lotu zizkidan eskuak sorbaldan, eta, ukabila lepoaren kontra, mehatxatu egin ninduen: “hemen guri esandakoa hitzez hitz goian deklaritzen ez baduzu, falta diren egunak infernua izango dira zuretzat” .

Deklarazioaren orduan hitza ez nuen guztiz bete, eta hurrengo egunak beldur batean bizi izan nituen, nire bila noiz etorriko. Baina bakean utzi ninduten.

Herio batean bizi izan nituen galdeketak. Dar-dar batean, izututa, psikologikoki blokeatuta.

Ziegan egunak eta gauak eduki ninduten zutik paretara begira, hiru gau lorik egin gabe. Eta handik galdeketara.

Polizia-etxera sartu ninduten ilunabar edo gau berean eraman ninduten deklaratzera. Beti zen protokolo bera: gelan zutik paretaren kontra zaudela kaputxa buruan jarri, eta zaintzaileak bere atzaparrez burua makurraraziz interrogatorio gelara. Han hiruzpalau gizonetako zeuden.

Burua estalita paretaren kontra jartzen ninduten, zutik, zangoak atzera eta zabal-zabal. Ahots gogorrez hasten ziren galderak, eta aldi berean kolpeak: kolpeak buruan, bizkarrean, jertsea eta alkandora erantzi ostean. Erregela edo antzeko batekin behin eta berriz zango tartetik eta atze aldetik nire parteetan jo ninduten. Hasiera batean plastiko bat ere jarri zidaten belarri parean, hotsa eraginez, eta gero besoan zehar pasa, zer zen ba ote nekien galdetuz. Eskuak indar gabe eta gorputza akituta gelditzen nintzen. Behin bakarrik utzi ninduten esertzen, lehen egunean. Minuturik ez zuen iraungo atsedendialdiak, pribilegioak kendu egiten zizkidatela esan zidaten ez nuelako kolaboratzen.

Galdera eta kolpeen artean zenbat mespretxu pertsonal, irain, mehatxu eta gezur! Neuretzako bakarrik gordeko ditudan mespretxu pertsonalez gainera, ondo gogoan ditut beste batzuk: lagunek salatu eta saldu egin nindutela, mendirik ezingo nuela gehiago igo belaunak txikituko zizkidatelako, emaztea ere bazekartela, haurren paraderoa, Martin Ugalde *Egunkaria*-ko lehen presidentea (nik adiskide min-mina nuena) hil egin zela atxilotzera joan zirenean. Hurrengo egunean, Martin lurperatu zutela esan zidaten. Eta nik sinetsi egin nien.

BI GOGOETATXO TARTEAN

Gogoeta pare bat egin nahi dizuet: jabetu zaitzete une batez zer den 60 urteko pertsona batentzat, idazlea, kultur aldizkari baten zuzendaria 28 urtez, 40 urtetan kulturaren munduan bizitza publikoa egin duen batentzat, gauek goizera egoera horretan bere burua aurkitzea!

Etxean eta bidean gertatutakoarekin, aurretiaz zatoz jota, eta orain txikitu egiten zaituzte.

Autoestimua lurperaturik ateratzen zara handik, lurreko harra baino gehiago ez zarela, nortasuna desegituratzea bilatzen dute.

Sinetsi ezadazue, inkomunikazio garaiko bost egun horiek ez direla bost, eternitatea baizik. Hain da gogorra errepresioa, hain da etengabea presioa, agortu egiten zaituzte fisikoki baino ere areago psikologikoki eta mentalki.

Zuetako norbaitek agian pentsatuko zuen bost eguneko infernuko kontakizuna egingo nuela soilik,

torturatzat horixe joz. Torturaren gailurra edo paroxismoa da, bai, baina nire bizialdi honetan ez da tortura-une bakarra. Aurrekoa kontatu dut (etxekoa, bulegokoa, bidaiakoa) tortura bezala bizi izan nuelako, eta bost eguneko egonaldiaren ondokoa ere azpimarratu nahi dut, nire esperientzian, batasun hautsezina suposatzen duelako, epaiketa barne. Epaiketa tarteko duzun artean, burutik ezin duzu kendu gertatua, dolu-aldian senidea ahaztu ezin den bezala. Prozesu guztia izan da tortura, fisikoa eta psikologikoa. Eta horren guztiaren ondorioak orain ari naiz pairatzen.

EPAILE INSTRUKTOREAREN AURREAN

Polizia-etxeko ziegetan bost gau egin eta hurrengo Audientzia Nazionaleko ziegan egin nuen, gelatxo hotz batean. Goizeko 5:30ean epailearen aurrera deklaratzera eraman ninduten. A zer piura edukiko nuen, egunetako bizarrarekin, jantzi berekin, aurpegia ere garbitu gabe, eta fisikoki eta psikologikoki abaildua. Neure burua ispiluan ikusterik ez nuen izan, eta pentsatu nuen epailearen begiratuan aurkituko nuela ispilua. Epaileaitsu zegoen, ordea; ez ninduen “ikusi”. “Inbisiblea” nintzen harentzat!

Kanpotik eta itxuraz nola nengoen ez dakit. Barrutik abaildua, hori bai. Nire deklarazioak transkribaturik irakurri ditudanean, horra ispilua: dena da inkoherentea, erdizka adierazia, trakets eta eskas.

Galdera eta galdera aritu zen epailea, polizia bat gehiago bailitzan, haien galdera berdinak eginez. Salatzaile sumatu nuen, poliziaren tesi berberekin.

Nire azalpenetatik deus ez zuen aintzat hartu bere txostenean. Are okerragoa dena: nik esandakoa polizien tesietara moldatu zuen.

Instrukzio guztia *contra reo* egin zuen Del Olmo epaileak.

Poliziaren instrukzioak bezala, epaile instruktoreak tesia hipotesiaren aurretik jarri zuen, eta ikuskera oker horrek prozesu guztia kutsatu zuen: ez diot nik, epaiketako tribunalak ebatzi du.

Tribunalak zazpi urte beranduago guztiok absolbitu gintuen eta sekulako jipioia eman zien guardia zibilen eta epailearen instrukzioei.

KARTZELA ETA 12 URTEKO BEHIN BEHINEKO ASKATASUNA

Hilabete eskas iraun zuen nire kartzelaldiak. *Egunkaria*-ko kide batzuk luzeago egon dira, urte eta erdi ere bai.

12.000 euroko fidantza ordainduta lortu nuen handik irtetea. Irten bai, baina normaltasuna lortu, noiz? Erdietsiko al dut sekula? Hasteko, ia 12 urte eman ditugu epaiketa bidean. Eta gero gerokoak.

Amesgaiztoak indartsuena ere agortzeraino iraun du, luze: zehazki 11 urte eta 8 hilabete luzatu da *Egunkaria*-ren aurkako epaiketa. Atzo arte: Amesgaiztoa judizialki bukatu dela, sei hilabete besterik ez da. Judizialki bakarrik itxi da kasua, bestalde: zeren eta *Egunkaria*-k itxia segitzen baitu, eta guk jasandako guztia geure baitan dugula, Estatuaren aldetik inolako erreparaziorik jaso gabe. Gure osasuna, gure lana, eta herriaren eta gure familien dirua, parrastaka bidean utzita.

Urte hauetako normaltasunik ezaren adibide gisa, puntu pare bat gogoratzera mugatuko naiz.

Eskubide zibilak mugatuta

Kalera ateratzearekin ez dira bukatzen zure problemak. Hasteko, epaiaren zain gelditzen zara, eskubide zibilak mugatuta: astero edo hamabostero epailearen aurrera joan behar duzu sinatzera, ez duzu muga gurutzatu edo atzerrira irteterik (Hendaiara ere ez!), zure kontuak (eta zurekin batera familiarenak) blokeaturik daude.

Neurri gogorak dira. Zigor hutsa. Nire kasuan, gogorrena muga ezin gurutzatua gertatu zait. Nire lan intelektual, profesional eta akademikoa eragotzi didate.

Bi kausa judizial

Auzi nagusia 2010eko apirilaren 12an bukatu zen, Audientzia Nazionaleko epaimahaiaren absoluzio-ebazpenarekin. Nolako sententzia, gainera: aurreiritzietan oinarrituriko instrukzioa izan zela, *Egunkaria*-rekin zerikusi zuzenik ez zuena, eta guri buruzko salakuntzek ez zutela inolako heldulekurik.

Edozeinek pentsa zezakeen hortxe bukatuko zela guztia, baina ez, lau urte gehiago iraun izan du auzi ekonomikoak, terrorismoaren biktimen akusazio popularrak bultzatua hasieran, eta gero fiskaltzak bere aldetik. Azkenik, sobreseimenduarekin bukatu da kasua 2014ko urrian, duela sei hilabete.

Zenbat lan eta neke epaiketa judizialki prestatzen! Zenbat lan, neke eta buruhauste gizartean eragiten, eta erakunde publikoak, alderdi politikoak, sindikatuak zein eragile soziokulturalak lantzen.

Prozesu luze honetan poz handiak izan ditugu, hemengo euskal gizartearen erantzunari esker, eta pena handiak ere bai. Gor-mutu asko aurkitu dugu bidean; eta gizarte ez euskaldunean, eta batez ere salbuespenak salbuespen hedabide espainiarretan, lehen zazpi urteetan gure ikuspegiari zentsurarik itxiena egin zaio. Hasierako inkisizioaren eta geroko zentsuraren biktima izan gara.

Nik neuk dedikazio handia eman diot gaiari, demasa, tarteka ehuneko ehun, eta askotan erdia eta gehiago, desgaste handikoa: epaia prestatzeari, babesak bilatzeari, salatuon artean elkartasunari eusteari... Dedikazio horrek nire inbestigazio eta lanetatik nabarmenki apartatu nau. Nire ekoizpen intelektualean 2003 urte hori mugarrira izan da. Hori ere epaiketaren zehar-kaltea da, etengabe korrontearen aurka egiteak dakarren desgasteaz gainera.

ONDORIO IREKIAK:

TORTURAREN NIRE MARKAK

Tortura ikuspegi askotatik iker daiteke. Nire testigantza honek torturatuaren perspektiba landu du: torturatuaren tortura. Adituek diote, torturatuaren torturak luze irauten duela, borroeroen aurreko hauskortasuna beti dagoela presente, ugari direla blokeoak eta kalte fisiko zein psikologikoak, eta sendagaitzak omen dira zauri horiek. Ez dakit. Irekita utzi nahi dut gaia.

Soilik niri neuri dagokidan puntu pare bat seinlatu nahi nuke.

Minaren muina

2011n Inma Gomila hil zen, 54 urte zituela, Egunkariako lehen kudeatzaile izanik gurekin batera preso hartua eta torturatua. Urte batzuetako borrokaren ondoren ezin izan zuen garaitu obulategiko minbizia. Azken hilekoa zortzi urte lehenago izana zuen, ziegako zuloan hain justu. Interrogatoriotik nola ekarri zuten negar-zotinka, ez dut sekula ahaztu. Hark eragin omen zion obulategiaren nekrosia.

Anekdota hutsa? Kausa-efektu erlaziorik gabea?

Zientifikoa ez naizenez, ezingo nuke frogatu tortura eta minbiziaren arteko kausa-efektu lotura zuzenik.

Itzul nadin nire minetara, neure historiara.

Presondegitik irten eta psikiatra bisitatu nuen. “Estress post-traumatikoa” omen neukan. Geroztik urteak joan dira. Zein izan ote da orduko estress post-traumatiko haren eboluzioa?

Interbentzio hau prestatzeko, paper zaharretara jo dut, agendetara. Egun beltz haietako markak maiz aurkitu ditut, orduko eta geroko oharretan: izua, mehatxuak, gezurrak, irainak, ezina.

Min horren sakontasuna adierazi nahian, izu panikoa hezurmuinetaraino sartu izan didatela idatzi izan dut behin eta berriz. Hezurmuinetaraino.

Hezurmuinetako hori figura literarioren parekoa zen niretzat, oraintsu arte.

Orain jakin dut ez nintzela figura literario batetaz ari, neuk jakin gabe, nire gaitzaren deskribapenaz baizik. Bai, minbizia dut, non eta hezurmuinean. Barrurago ezin. “Mieloma multiple” du izena.

Lagun terapeuta batek dio hezurmuinean izkutatu nuela mina, eta hortxe gorde-gorderik mantendu izan dudala, isilean.

Zuen aurrean eta testuinguru honetan egin nahi dut publiko nire gaitza. Bistan da zergatik: deskribatu dudana torturari lotzen diot gaitza, **nire** minbizia. Berriz diot, ez naizela sendagilea eta frogarik ez dudala aurkeztuko. **Nire** minbiziak erroak non dituen, ordea, nik garbi dut. Eta nire psikiatrak ere bai.

Usurbil, 2015.02.20

atxiloketaren 12. urteurrena